


ZERGAK IMPUESTOS

ZERTARAKO?

GIZARTE LEHIAKORRA, BERDINZALEA ETA SOLIDARIOA IZATEKO

GIZALEGEARI ETA ZERGA-SISTEMARI BURUZKO HEZKUNTZA-MODULUA, LEHEN HEZKUNTZAKO 5. MAILATIK AURRERAKO IKASLEENTZAT.

Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuan, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlarilzak kompromiso-jarrerak sendotzeko apustua egiten dute; honetarako zerbitzu publikoa eusten laguntzeko balio sozialari buruzko kontzientzia eragiten dute. Animatu eta parte hartu!

¿PARA QUÉ?

PARA UNA SOCIEDAD COMPETITIVA, IGUALITARIA Y SOLIDARIA

MÓDULO EDUCATIVO CÍVICO-TRIBUTARIO PARA ALUMNADO A PARTIR DE 5º DE PRIMARIA.

Dentro del Plan Conjunto de Lucha Contra el Fraude Fiscal, Diputaciones Forales y Gobierno Vasco apuestan por fortalecer actitudes de compromiso, concienciando sobre el valor social de contribuir al sostenimiento de los servicios públicos.
¡Animaos a participar!



OSASUNA / SANIDAD · HEZKUNTZA / EDUCACIÓN · ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK / EMPLEO Y POLITICAS SOCIALES · EKONOMIAREN GARAPENA / DESARROLLO ECONÓMICO · AZPIEGITURAK / INFRAESTRUCTURAS · SEGURTASUNA / SEGURIDAD · KULTURA / CULTURA

araba álava · Bizkaia foru aldundia diputación foral · GIPUZKOA · Euskadi, auzolana, bien común · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gaur irakatsi biharko gizarte justuagoa gogoan

Administrazio publikoek zergetan dute beren finantziazio-iturri nagusia, eta haiei esker eskain ditzakete herritarrontzat oinarrizkoak diren zerbitzuak, adibidez hezkuntza, osasungintza, azpiegiturak, babes soziala edo segurtasuna. Zergak ongizate kolektiboa eta gizarte-kohesioa zuzenean sustatzen dituzten zerbitzuen bermea dira.

Funtsezkoa da, beraz, herritarrek, erakundeek eta enpresek beren zerga-betebeharrak betetzea, guztien ekarpenei esker ziurta baitaiteke eskaintzan diren zerbitzuak kalitatekoak direla, gizartearen beharrei behar bezala erantzuteko modukoak.


Zerga-betebeharrak betetzen ez badira, behera egiten dute diru-sarrera publikoek, eta horrekin bat, murrizten da Administrazioek politika publikoak garatzeko eta behar kolektiboei erantzuteko duten gaitasuna. Iruzurkeria bat-berak gutxitu egiten du gizarte guztiaren onerakoak diren zerbitzuen aukera.

Iruzur fiskala bereziki larria da, bestetik, tributu-sistema orok funtsezkoa duten printzipio bati, ekitateari, erasotzen diolako. Nahiz eta zerga-araudi bat diseinatuta egon diru-bilketa norberaren ahalmen ekonomikoaren araberakoa izan dadin, eta, horrela, baliabide gehien dituztenek gehiago ordain dezaten, ezer gutxi lortuko da azkenean baten batzuek itzuri egiten badiote beren betebeharrari. Hala gertatzen denean, ahalegin fiskala astunago da betetzen dutenentzat, eta horrek bidegabekeriaren sentipena eragin dezake, eta sistemarekiko konfiantza ahuldu.

Horregatik, berebiziko garrantzia hartzen du herritarren zerga-heziketak. Zergek gure egunerokoan duten funtzioa ulertzeko lehen pausu bat ikastetxeko neska-mutil koskorrekin eman daiteke, ikasleei erakutsiz zer diren eta nola funtzionatzen duten instituzio publikoek, nola banatzen diren eskumenak eta zer finantzazio-bide posible dauden.

Hortik abiatuta, ikusgai aurkez daiteke herritarrek eta enpresek ondasunak eta zerbitzuak jasotzen dituztela ordaintzen dituzten zergen truke, estu loturik daudela, hartara, bata bestearekin. Hori ulertzea era bat da zergak ordaindu beharrak itsatsita ekarri ohi duen irudi negatiboa gainditzeko, eta, aldiz, zergak elkartasunaren, erantzunkidetasunaren eta elkarrekin eraikitzen den ongizatearen erakusgarri gisa ikusteko.

Lortzen badugu belaunaldi berriek zergen balio sozialaz jabetzea, zergak zerbitzu publikoen euskarria direla ulertzea, errazago ulertuko dituzte iruzur fiskalaren ondorio kaltegarriak ere, jarrera kritikoa garatuz horrelako jokamoldeen aurrean. Heziketa-lan horretan parte hartuz, beraz, bat egiten dugu herritar arduratsuagoak eraikitzeko ahaleginean, guztion onura eta ongizate komuna izan daitezen haien helburua.



Educar hoy para una sociedad más justa mañana

Los impuestos constituyen la principal fuente de financiación de las administraciones públicas y hacen posible la prestación de servicios esenciales para la ciudadanía, como la educación, la sanidad, las infraestructuras, la protección social o la seguridad. Gracias a ellos se garantiza el funcionamiento de servicios que contribuyen de forma directa al bienestar colectivo y a la cohesión social.

Por ello, resulta fundamental que la ciudadanía, las organizaciones y las empresas cumplan con sus obligaciones tributarias. Su contribución permite sostener estos servicios públicos y asegurar que puedan seguir prestándose con los niveles de calidad necesarios para responder a las necesidades de la sociedad.

El incumplimiento de dichas obligaciones no solo supone una merma directa de los ingresos públicos, sino que también limita la capacidad de las Administraciones para desarrollar políticas públicas y atender las necesidades colectivas. Cada conducta fraudulenta reduce los recursos disponibles para financiar aquellos servicios de los que toda la sociedad se beneficia.

Además, el fraude fiscal genera un efecto especialmente perjudicial sobre uno de los principios fundamentales de cualquier sistema tributario: la equidad. De poco serviría contar con una normativa fiscal diseñada para que quienes tienen una capacidad económica similar contribuyan de manera equivalente y quienes disponen de mayores recursos aporten en mayor medida, si en la práctica algunas personas eluden sus obligaciones. Cuando esto sucede, la carga fiscal termina recayendo de forma desigual sobre quienes sí cumplen, lo que puede generar una percepción de injusticia y debilitar la confianza en el sistema.

Por este motivo, la educación cívico-tributaria desempeña un papel fundamental. Acercar al alumnado, desde edades tempranas, al conocimiento de las instituciones públicas, su funcionamiento, la distribución de competencias y las distintas formas de financiación constituye el primer paso para comprender el papel que desempeñan los impuestos en nuestra vida cotidiana.

A partir de esa base, es posible mostrar la relación directa existente entre los recursos que la ciudadanía y las empresas aportan a través de los tributos y los bienes y servicios que reciben a cambio. Comprender esta conexión contribuye a superar la visión negativa que, en ocasiones, puede asociarse al pago de impuestos y permite percibirlos como una herramienta de solidaridad, corresponsabilidad y construcción colectiva del bienestar.

Si conseguimos que las nuevas generaciones comprendan el valor social de los impuestos y la función que desempeñan en el sostenimiento de los servicios públicos, estarán también mejor preparadas para identificar los efectos perjudiciales del fraude fiscal y desarrollar una actitud crítica frente a este tipo de conductas. En definitiva, estaremos contribuyendo a formar una ciudadanía más responsable, comprometida con el interés general y consciente de que el bienestar colectivo es una responsabilidad compartida.

Euskadiko erakundeek bat iruzur fiskalaren aurka

Foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritza bat gatoz iruzur fiskalaren aurkako borrokak lehentasunetako bat izan behar duelakoan politika publikoen artean. Kontrol-neurriekin batera prebentzioa bultzatu behar da, gazteen kontzientzia fiskala sustatzeko eta erantzukizuna, elkartasuna eta zerbitzu publikoak sostengatzeko konpromisoa hezkuntza-alorrera zabaltzeko.

Konpromiso horren adierazgarri, lau erakundeek osatzen duten Euskadiko Iruzur Fiskalaren aurkako Borrokarako Batzordeak heziketa zibiko-tributarioa txertatu du Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuaren lerro estrategikoetan.

Prebentzioaren aldeko lan-ildo horretan, Zerga-hezkuntzako Programa Euskadin garatu diren ekimen nagusietako bat da. Programa Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek 2017an sinatutako lankidetza-hitzarmenetik sortu zen, eta ikastetxeetan izan zuen harrera bikainagatik, harrezkero haziz joan da, eta berretsia izan da ekitalditik ekitaldira.

Hezkuntza-komunitateak halako interesa adierazita, zabalduz joan da programaren ezarpen-eremua, gaur egun Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrerako ikasleei eskaintzen zaielarik. Helburua da gazteengan zerga-betebeharrekiko ardura eta erantzukizuna sustatzea, iruzurrezko jokamoldeak prebenitzeko eta zilegitasunez gabetzeko.

Lankidetza-hitzarmenaren esparruan zerbitzu-kontratu bat ere formalizatu zen, ikastetxeei ekonomia eta fiskalitateari buruzko unitate didaktikoaren ezarpen-aldian laguntza eta sorospena emateko.

Bere bilakaerak erakusten duenez, programa finkatua dago, gero eta ikastetxe gehiagotara hedatuta Euskadin. Martxan jarri zenetik hona, parte hartzen duten ikastetxeen kopurua 2017/2018 ikasturteko 132etatik 2025/2026ko 277etara handitu da, proiektuak hezkuntza-komunitatean lortu duen harrera onaren eta interes iraunkorraren froga.



Datuek agerian uzten dute programaren sendotasuna eta arrakasta, erreferentziazko tresna bilakatu baita ikasleei ikusarazteko zein den zergen funtzioa eta zein den garrantzitsua herritarrek gizartearen onura xedetzat hartzea.

Las instituciones de Euskadi unidas contra el fraude fiscal

Las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco compartimos la convicción de que la lucha contra el fraude fiscal debe ocupar un lugar prioritario dentro de las políticas públicas. Junto a las medidas de control, resulta esencial impulsar actuaciones preventivas que fomenten una mayor conciencia fiscal desde edades tempranas y contribuyan a transmitir, en el ámbito educativo, los valores de responsabilidad, solidaridad y compromiso con el sostenimiento de los servicios públicos.

Muestra de este compromiso es que la Comisión de Lucha contra el Fraude Fiscal del País Vasco, integrada por las cuatro instituciones, ha incorporado la promoción de la educación cívico-tributaria entre las líneas estratégicas de actuación de los sucesivos Planes Conjuntos de Lucha contra el Fraude Fiscal.

En este marco, el Programa de Educación Tributaria se ha consolidado como una de las principales iniciativas preventivas desarrolladas en Euskadi. Nacido del convenio de colaboración suscrito en 2017 entre el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, y renovado de forma continuada desde entonces, el programa ha experimentado un crecimiento constante gracias a la excelente acogida de los centros educativos.

El interés mostrado por la comunidad educativa ha impulsado la ampliación progresiva de su ámbito de actuación, permitiendo que actualmente el programa se dirija al alumnado a partir de 5.º de Primaria. Con ello, se persigue fomentar desde edades tempranas una cultura de cumplimiento y responsabilidad fiscal, contribuyendo a prevenir y deslegitimar las conductas fraudulentas.

Asimismo, al amparo del convenio de colaboración, se formalizó un contrato de servicios para prestar asistencia y apoyo a los centros escolares en la implantación de la unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad.

La evolución del programa refleja su consolidación y la creciente implicación de los centros educativos de Euskadi. Desde su puesta en marcha en el curso 2017/2018, el número de centros participantes ha pasado de 132 a 277 en el curso 2025/2026, lo que pone de manifiesto la buena acogida del proyecto y el interés sostenido de la comunidad educativa.



Estos datos evidencian la consolidación y el éxito del programa, que se ha convertido en una herramienta de referencia para acercar al alumnado el papel de los impuestos y la importancia de una ciudadanía comprometida con el interés general.

Proiektu komun bat kontzientzia fiskala sustatzeko

Eusko Jaurlaritzaren eta foru-diputazioen arteko lankidetza-hitzarmenean aurreikusia dago ekonomia eta fiskalitateari buruzko unitate didaktikoak Euskadiko ikastetxeetara eramateko behar diren laguntza-zerbitzuak elkarren artean kontratatzea.

Programaren helburua da ikasleak iruzur fiskalaren ondorio sozial eta ekonomikoez ohartaraztea, eta erantzukizunaren, elkartasunaren eta zerbitzu publikoak sostengatzeko konpromisoaren balioak zabaltzea. Horretarako, lankidetza- eta partaidetza-ikaskuntzaren teknikak baliatzen dira ikasleak ekonomiaren eta euskal sektore publikoaren funtzionamendura hurbilarazteko, eta jarduera praktiko eta interaktiboen bitartez teknologia berriak eta esperientzia bidezko ikaskuntza ere txertatu dira.


Helburua da, azken batean, belaunaldi berrien kontzientzia fiskala sendotuko duten hezkuntza-ekintzak diseinatzea, koordinatzea eta garatzea, zerga-hezkuntzari etikaren, gizalegearen eta herritartasun arduratsuaren ikuspegietatik helduz.

Proiektuari eman nahi zaion iraunkortasuna lortze aldera, hura finkatu beharra dago, eta ahalik eta gehien zabaldu.

Zer gaitasun, jakintza edo balio helarazi nahi zaizkie ikasleei?

Programan ikasi dutenari esker, ikasleak beren prestakuntza-ibilbideari egokitutako gaitasunak eskuratzeko gauza izango dira, bai zeharkako gaitasunak (*teknologia berrien erabilera, talde-lana, komunikatzeko gaitasuna*) bai ekonomiarekin eta zerga-sistemarekin lotutako gaitasun espezifikoak, zehazki:

- Sektore publikoak eskaintzen dituen zerbitzu nagusiak.
- Aurrekontuaren erabilera eta banaketa sektore publikoan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko arkitektura instituzionala.
- Ekonomia Itunaren oinarrizko ezagutzak eta berezitasunak.
- Zerga-sistema forala. Zerga nagusien egitura.
- Zergen bidez bildutakoaren banaketari buruzko jakintza handiagoa; bereziki, zergen eta gizarte-zerbitzuen arteko loturari dagokionez.
- Zerga-iruzurra eta haren ondorioak zerbitzu publikoetan. Zerga-iruzurraren aurkako borroka.



Un proyecto compartido para fomentar la conciencia fiscal

El convenio de colaboración entre el Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales establece las bases para la contratación conjunta de los servicios de apoyo necesarios para implantar, en los centros educativos de Euskadi, las unidades didácticas sobre economía y fiscalidad.

El programa tiene como objetivo sensibilizar al alumnado sobre las consecuencias sociales y económicas del fraude fiscal, promoviendo valores de responsabilidad, solidaridad y compromiso con el sostenimiento de los servicios públicos. Para ello, combina metodologías de aprendizaje cooperativo y participativo que acercan al alumnado al funcionamiento de la economía y la fiscalidad del sector público vasco, junto con actividades prácticas e interactivas que favorecen el uso de las nuevas tecnologías y el aprendizaje experiencial.

En definitiva, se trata de diseñar, coordinar y desarrollar acciones educativas destinadas a fortalecer la conciencia fiscal de las nuevas generaciones, abordando la educación tributaria desde una perspectiva ética, cívica y de ciudadanía responsable.

El proyecto tiene vocación de continuidad y el objetivo es que se consolide y que alcance en el futuro el mayor grado de cobertura posible.

¿Qué capacidades, conocimientos o valores se pretende que adquiera el alumnado?

Como resultado del aprendizaje, el alumnado deberá ser capaz de adquirir competencias –adaptadas en función de los distintos itinerarios formativos ofertados– tanto transversales *(uso de nuevas tecnologías, trabajo en equipo, capacidad de comunicación)* como específicas en economía y fiscalidad, a saber:

- Principales servicios que ofrece el sector público.
- Utilización y reparto del presupuesto en el sector público.
- Arquitectura institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Conocimientos básicos y peculiaridades del Concierto Económico.
- Examen del sistema fiscal foral y conocimiento de la estructura de los principales impuestos.
- Aumento del conocimiento de la distribución de los fondos públicos recaudados a través de los tributos; en particular, relación entre tributos y servicios sociales.
- El fraude fiscal. Su incidencia en los servicios públicos. La lucha contra el fraude fiscal.

Zer ikastetxe atxiki daitezke proiektuari?

Hala nahi badute, atxiki daitezke programari Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten hiru hezkuntza-modalitateetako ikastetxeak, jarraian zehatzen diren mailetakoren bat irakasten badute:

- Lehen zikloa: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak.
- Bigarren zikloa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 1. eta 2. mailak.
- Hirugarren zikloa: DBHko 3. eta 4. mailak, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

Modalitate bakoitzean berariazko edukiak, jarduerak eta material didaktikoak baliatuko dira, ikasleen adinera eta ezaugarrietara egokituak eta lehen hezkuntza-mailetatik erantzukizun fiskalaren eta herritartasun arduratsuaren kultura sustatzera bideratuak.

Nola atxiki programari?

Zerga-hezkuntzako Programan parte hartu nahi duten ikastetxeak horretarako izen-emate inprimakia bete beharko dute. Eskuragarri dute Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunean: Zerga-hezkuntzako Programa

Behin izen-emate eskaera jasota, laguntza-zerbitzua eta baliabide didaktikoak ematea dagokion erakundea harremanetan jarriko da ikastetxearekin, programaren ezarpen-aldian argibideak emateko, zalantzak argitzeko eta jarduerak modu egokian gauzatzeko behar den laguntza eskaintzeko.

Edonola ere, kontsultaren bat egin behar izanez gero izena emateko prozedura nahiz programa bera direla eta, Eusko Jaurlaritzako Zerga Administrazioko Zuzendaritzara jo daiteke:

- Telefonoa: 945 01 89 46
- Posta elektronikoa: zerga-hezkuntza@euskadi.eus

¿Qué centros escolares pueden adherirse al proyecto?

Pueden adherirse al programa, de manera voluntaria, los centros educativos de la Comunidad Autónoma de Euskadi que impartan alguno de los niveles incluidos en las tres modalidades formativas previstas:

- Primer ciclo: 5.º y 6.º de Educación Primaria.
- Segundo ciclo: 1.º y 2.º de Educación Secundaria Obligatoria (ESO).
- Tercer ciclo: 3.º y 4.º de ESO, Bachillerato y Formación Profesional.

Cada modalidad dispone de contenidos, actividades y materiales didácticos específicos, adaptados a la edad y características del alumnado, con el objetivo de fomentar una cultura de responsabilidad fiscal y ciudadanía comprometida desde las primeras etapas educativas.


¿Cómo adherirse al programa?

Los centros escolares interesados en participar en el Programa de Educación Tributaria pueden formalizar su adhesión cumplimentando el formulario de inscripción disponible en la web del Departamento de Hacienda y Finanzas del Gobierno Vasco: Programa de Educación Tributaria

Una vez recibida la inscripción, la entidad encargada de prestar el servicio de apoyo y facilitar los recursos didácticos se pondrá en contacto con el centro educativo para asesorarle durante todo el proceso de implantación del programa, resolver las dudas que puedan surgir y ofrecer el acompañamiento necesario para el correcto desarrollo de las actividades.

Asimismo, cualquier consulta relacionada con el procedimiento de adhesión o con el programa puede dirigirse a la Dirección de Administración Tributaria del Gobierno Vasco:

- Teléfono: 945 01 89 46
- Correo electrónico: zerga-hezkuntza@euskadi.eus



Metodologia eta laguntza-ematea



Unitate didaktikoa garatzeko metodologia aktiboa da, parte-hartzaren bultzatzailea eta ikasleen errealitateari egokitua. Programan badira, beraz, ikaskuntza kooperatiboaren eta lankidetza bidezkoaren jarduerak, ikasleak ekonomiaren eta Euskadiko sektore publikoko fiskalitatearen oinarrizko kontzeptuetara hurbilarazteko, eta haiekin batera, jarduera praktikoak, interaktiboak eta esperientziazkoak, ikasgelan teknologia berrien erabilera eta parte-hartze aktiboa txertatzen dituztenak.

Ikastetxe bakoitzaren beharretara egokitzeko, programak metodologia malgua eta prestakuntza-ibilbide desberdinak eskaintzen ditu, iraupenaren, edukien zenbaterainokoaren eta jarduera moten arabera sailkatuak:

- Oinarrizko ibilbidea: 4 saio.
- Ibilbide arrunta: 7 saio.
- Ibilbide aurreratua: 10 saio.



Ikastetxeek, bestetik, aurrez aurreko modalitatea edo online modalitatea aukera ditzakete, programa eta beren ikasketa-plangintza errazago bateratzeko.

Jakina da ikastetxeen egunerokoa denborak eta antolakuntzaren gorabeherek mugatua dagoela, eta horregatik, programa ahalik eta eragozpen gutxienekin aplikatzeko moduan diseinatu da. Ikastetxeak, gainera, uneoro izango dute eskuragarri kontratatutako laguntza-taldearen sostengua, planifikazio-aldian zein jarduerak eurak egin bitartean.



Multimedia baliabideei eta tresna digitalei esker edukiak erraz eta modu erakargarrian aurkez daitezke, ikasleen parte-hartzea sustatuz ikasketaren zehaztasunaren kalterik gabe.

Nork irakatsiko du unitate didaktikoa?

Martxan jartzen den unetik bertatik, programak laguntza espezializatua izango du bere zerbitzura. Lehen saioaz laguntza- eta sostengu-taldeetako profesionalak arduratuko dira. Edukiak aurkezteaz gain, orientabideak eskainiko dizkiete irakasleei eta proiektuaren abialdian sor litezkeen zalantzak argituko dituzte. Estreinako saio hori aurrez aurrekoa izan ahalko da, ikastetxean bertan emana, edo telematikoa, ikastetxeak dituen beharren eta aukeratzen duen modalitatearen arabera.

Hortik aurrera, unitatearen garapena ikastetxeko irakasleen esku geratuko da, guztiz autonomoak izango baitira saioa ematerakoan, lagungarri dituztelarik, bestalde, programaren plataforma digitaleko material didaktikoak eta multimedia baliabideak.

Edonola ere, laguntza- eta sostengu-taldea lanerako prest egongo da uneoro, ikastetxeari behar duen aholkularitza, laguntza eta sostengu tekniko edo pedagogikoa emateko.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, bere aldetik, prestakuntza-ibilbide lantsuenetan jardundako irakasleen lana egiaztatuko du, programaren garapenean erakutsitako konpromisoa eta inplikazioa aitortzeko.

Metodología y acompañamiento



La unidad didáctica se desarrolla mediante una metodología activa, participativa y adaptada a la realidad del alumnado. Para ello, el programa combina actividades de aprendizaje cooperativo y colaborativo, que acercan al alumnado a los conceptos básicos de economía y fiscalidad del sector público vasco, con propuestas prácticas, interactivas y experienciales que incorporan el uso de las nuevas tecnologías y favorecen la participación activa en el aula.

Con el fin de adaptarse a las necesidades de cada centro educativo, el programa ofrece una metodología flexible y diferentes itinerarios formativos, graduados según su duración, profundidad de contenidos y tipología de actividades:

- Itinerario básico: 4 sesiones.
- Itinerario estándar: 7 sesiones.
- Itinerario avanzado: 10 sesiones.



Asimismo, los centros pueden elegir entre la modalidad presencial y la modalidad online, facilitando así la integración del programa en su planificación académica.

Conscientes de las limitaciones de tiempo y organización existentes en los centros escolares, el programa ha sido diseñado para facilitar su implantación con un esfuerzo asumible. Además, los centros contarán en todo momento con el apoyo y asesoramiento especializado del equipo de asistencia contratado, tanto en la fase de planificación como durante el desarrollo de las actividades.



Los contenidos se apoyan en recursos multimedia y herramientas digitales que permiten transmitir los conceptos de forma atractiva y dinámica, favoreciendo la participación del alumnado sin renunciar al rigor educativo.

¿Quién impartirá la unidad didáctica?

La puesta en marcha del programa cuenta con un acompañamiento especializado desde el primer momento. La sesión inicial será impartida por el equipo profesional encargado de los servicios de asistencia y apoyo, que presentará los contenidos, orientará al profesorado y resolverá las dudas que puedan surgir durante el arranque del proyecto. Esta primera sesión podrá realizarse de forma presencial en el propio centro educativo o en modalidad telemática, según las necesidades y preferencias de cada centro.

A partir de ese momento, el desarrollo de la unidad didáctica corresponderá al propio profesorado del centro, que podrá impartir las sesiones con total autonomía, apoyándose en los materiales didácticos y recursos multimedia disponibles en la plataforma digital del programa.

En todo caso, el equipo de asistencia y apoyo permanecerá a disposición de los centros educativos durante todo el proceso para ofrecer asesoramiento, acompañamiento y soporte técnico o pedagógico siempre que sea necesario.

Asimismo, el Departamento de Educación del Gobierno Vasco certificará la participación del profesorado que realice los itinerarios formativos de mayor dedicación, reconociendo así el compromiso y la implicación en el desarrollo del programa.

Unitate didaktikoaren edukiak eta egitura

Unitate didaktikoen edukia kontsultagarri dago Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru-aldundien Zerga Hezkuntza atarietan:

- Araba - Zerga Hezkuntza
- Bizkaia - Zerga Heziketa
- Gipuzkoa - Ekonomia eta zergak
- Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza

Ikastetxeek, bestalde, eskura izango dituzte ikasleen kasuan kasuko hezkuntza-etapari egokitutako material didaktikoak. Baliabide horiek foru-aldundiek garatutako unitate didaktikoetan oinarrituak daude, eta hizkunta- eta pedagogia-alderdien ebaluazioa gaindituta, Hezkuntza Sailaren onetsia jaso dute.

Irakasleek erabilgarri izango ditu eduki zehatzak, eguneratuak eta ikasgelarako egokituak jarduerak aurrera eramateko eta ikasleei ikaskuntza-prozesuan laguntzeko



Contenido y estructura de la unidad didáctica


Los contenidos de las unidades didácticas pueden consultarse a través de los portales de Educación Tributaria de las tres Diputaciones Forales y del Gobierno Vasco:

- Álava - Educación Tributaria
- Bizkaia - Educación Tributaria
- Gipuzkoa - Economía e impuestos
- Gobierno Vasco - Educación Tributaria

Además, cada centro educativo dispondrá de materiales didácticos específicos adaptados a la etapa educativa del alumnado. Estos recursos han sido elaborados a partir de las unidades didácticas desarrolladas por las Diputaciones Forales y cuentan con el reconocimiento de idoneidad del Departamento de Educación, tras superar los correspondientes procesos de evaluación lingüística y pedagógica.

De este modo, el profesorado dispondrá de contenidos rigurosos, actualizados y adaptados al aula para facilitar el desarrollo de las actividades y favorecer el aprendizaje del alumnado.





ZERGAK
IMPUESTOS



araba
álava

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GIPUZKOA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO